

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA**

595/2023 Foru Agindua, irailaren 19koa Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 604 eredu onesten duen ekainaren 22ko 433/2023 Foru Aginduaren azken xedapena aldatzea

Finantza Transakzioen gaineko Zergaren urriaren 15eko 5/2020 Legea 2021eko urtarrilaren 16an sartu zen indarrean.

Finantza Transakzioen gaineko Zerga onetsi ondoren, otsailaren 8ko 1/2022 Legeak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen baita, Finantza Transakzioen gaineko Zergaren ituna sartu zuen Itunaren 34 bis artikulua berriaren bidez. Artikulu horrek aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena eta ikuskerapena ezartzen ditu, eta lehenengo apartatuan xedatzen du tributu itundu bat dela, Estatuak unean une ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautzen dena.

2022ko martxoaren 23an, ALHAOn argitaratu zen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 15eko 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Finantza Transakzioen gaineko Zerga Arabako zerga sisteman txertatzen duena.

Ekainaren 22ko 433/2023 Foru Aginduaren bidez, zerga horren autolikidazioa egiteko 604 eredu onetsi zen. Eredu horretan xedatzen denez, 2023ko irailaren 1etik aurrera hasten diren likidazio aldiei dagozkien autolikidazioei aplikatuko zaie.

Gerora sortutako inguruabar teknikoak direla eta, Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidazio eredu berria 2024ko urtarrilaren 1era arte atzeratzea komeni da, inplikaturako administrazio guztiek zerga behar bezala ordainaraziko dutela bermatzeko.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Ekainaren 22ko 433/2023 Foru Agindua aldatzea. Onespena ematea Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 604 ereduari.

Aldatu egiten da azken xedapena, eta honela geratzen da idatzita:

“Azken xedapena. Indarrean jartzea

“Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazio aldiei dagozkien finantza transakzioen gaineko zergaren autolikidazioei aplikatuko zaie.”

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 2a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA